

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2014	R13/2016	2016-06-20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Nafarroako Foru Erkidegoa lurralde erkidetzat jotzea. Gatazkaren onargarritasunik eza.

R13/2016 Ebazpena

8/2014 Espedientea

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 20a,

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

## ADOSTU DU

2014ko otsailaren 11n Araudia Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Batzordeak hasitako prozeduraren gainean, 1. ERAKUNDEA (IFZ: -----) erakundeak egindako zerga-kontsulta ebazteko akordiorik eza dela eta. Kontsulta hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen da, 8/2014 espediente-zenbakiarekin, Isaac Merino Jara jauna hizlari dela.

## I. AURREKARIAK

1.- Bizkaiko Foru Ogasuneko (BFA) zuzendari nagusiari zuzendutako idazkiaren bitartez (sarrera 2004ko urtarrilaren 29an erregistratu zen), 1. ERAKUNDEA erakundeak, egoitza fiskala Bizkaian duenak, kontsulta egin zuen auzi honi buruz:

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren ondoreetarako, zer kontsiderazio eman behar zitzaien 1. ERAKUNDEA erakundeak Nafarroako Foru Erkidegoan egiten zituen merkataritza-eragiketei. Hau da, foru-lurraldean egindako eragiketa gisa zenbatu behar ziren edo araubide erkideko lurraldean egindako eragiketa gisa? Horren xedea zen aurreko ekitaldian lurralde bakoitzean egindako eragiketa-ehunekoa zehaztea eta, horrenbestez, araudi-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2014	R13/2016	2016-06-20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Nafarroako Foru Erkidegoa lurralde erkidetzat jotzea. Gatazkaren onargarritasunik eza.</i>

eta ikuskaritza-eskumena erakundeak egoitzak fiskala duen lurralde historikoaren foru-administrazioari, kasu honetan, Bizkaiko Foru Ogasunari, edo Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari (ZAEA) zegokion zehaztea.

Azken batean, erakundeak erantzun bat eskatzen zuen, Nafarroan egindako eragiketak zenbatzeko erari buruz. Izan ere, erantzunaren arabera, sozietate-zergaren eta balio erantsiaren gaineko zergaren araudi- eta ikuskaritza-eskumenak alda daitezke. Hori guztia galdetu zuen, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren 14.1. artikuluan ezarritako banaketa-irizpidea aplikatzeko.

2.- 2004ko martxoaren 3ko data duen eta hil horretako 10ean jakinarazi zen idazkiaren bitartez, Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua ondoz ondo, Eusko Jaurlaritzako Zerga Administrazioiko zuzendariak erakundeak egindako kontsulta igorri zion Ogasun Ministerioko Lurralde eta Erkidego Politika Fiskaleko idazkari nagusiari, Euskadiko Zerga Koordinazioko Organoak (EZKO) 2004ko otsailaren 10eko 1/2004 saioan egindako erantzun-proposamenarekin batera.

Erantzun-proposamen horrek ondorioztatzen zuen erakundeak Nafarroako Foru Erkidegoan egindako eragiketak ez zirela araubide erkideko lurraldean egintzat hartu behar, Foru Erkidegoak Euskadiko lurralde historikoen antzeko araubidea duen heinean (Ekonomia Itunaren bidez antolatua). Horren ondorioz, foru-araubideko lurraldea da. Beraz, Ekonomia Itunak xedatutakoaren ondoretarako, Nafarroako Foru Erkidegoan egindako eragiketak ezin dira araubide erkideko lurraldean egindakoen artean zenbatu.

3.- Ogasun Ministerioko Lurralde Finantzaketako zuzendari nagusiak, 2004ko maiatzaren 10eko idazkiaren bidez (sarrera 2004ko maiatzaren 12an erregistratu zen), Eusko Jaurlaritzako Zerga Administrazioiko zuzendariari

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2014	R13/2016	2016-06-20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Nafarroako Foru Erkidegoa lurralde erkidetzat jotzea. Gatazkaren onargarritasunik eza.</i>

jakinarazi zion, EZKOak eraturako proposamena aztertu ondoren, ez zettorrela harekin bat, honako argudio hauek direla eta:

1.- Ekonomia Itunak Estatuaren eta Euskadiren arteko zerga-harremanak arautzen ditu (Euskadiko Autonomia Estatutuaren 41. art.). Ez ditu Estatuaren eta beste autonomia-erkidegoen arteko harremanak arautzen, eta ez da horiez arduratzen, ez eta autonomia-erkidego horien arteko harremanez ere.

Ondorioz, Ekonomia Itunak, bere arauketa osoan zehar, euskal lurraldera edo euskal foru-araubidera baino ez du mugatu behar, Estatutuko gainerako lurraldeekiko edo Estatuko gainerako zerga-araubideekiko ezberdin gisa. Hala, Ekonomia Itunak honako izendapen hauek jasotzen ditu, besteak beste: administrazio biak, euskal lurraldea eta lurralde erkidea, foru-araubidea eta araubide erkidea... Izendapen horiek guztiek Euskadiko zerga-araubidea, lurraldea, eskumeneko administrazioa eta abar Estatuko gainerakoetatik desberdintzen dituzte; zerga- eta finantza-ikuspegitik, Euskadi ez den Estatuko gainerako lekuetan dagoen antolakuntza alde batera utzita.

2.- Eragiketa-bolumena eta horien kokapena kalkulatzeko, Ekonomia Itunak lurralde erkide gisa identifikatzen du Euskadi ez den Estatuko gainerako lurralde osoa. Lurralde historikoen barneko foru-araudiak identifikazio bera egiten du, bereziki, Bizkaiko foru-araudiak.

3.- Ekonomia Ituna Koordinatzeko Batzordeak berak irizpidea du gai horren inguruan, hain zuzen ere, 1. ENPRESA enpresak 1995eko apirilaren 17an egindako kontsultaren erantzunean azaldutakoa, honakoa ebatzi zuena:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2014	R13/2016	2016-06-20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Nafarroako Foru Erkidegoa lurralde erkidetzat jotzea. Gatazkaren onargarritasunik eza.

«Lurralde erkidearen eta foru-lurraldearen arteko bereizketa.

Azkenik, enpresak lurralde erkidean, Nafarroako Foru Erkidegoaren lurraldean, jardungo duenez, Ituna aplikatzearen inguruan adierazi beharra dago Foru Erkidegoko lurraldea lurralde erkidetzat hartuko dela, eragiketa-bolumena eta horiek egin diren lekua kalkulatzeko dakartzan ondorio guztiekin».

Beraz, ZAEaren iritziz, zergapeko batek Nafarroako foru-lurraldean egiten dituen eragiketa guztiak lurralde erkidean kokatutzat hartu beharko dira, bai eta horrela zenbatu ere.

4.- Ekonomia Ituneko 64.b) artikuluan eta abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak (EIABA) onetsitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 14. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, 2014ko urtarrilaren 16ko saioan, Araudia Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Batzordeak adostu zuen Arbitraje Batzordeari igortzea, besteak beste, 1. ERAKUNDEA erakundeak egindako kontsulta, horren inguruko ebazpenaren inguruko akordiorik egin ez baitzen. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Politikako sailburuordeari eta Erkidegoko eta Tokiko Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari gomendatu zien Batzordeari espedientean dagoen dokumentazioa bidaltzeko.

5.- Gomendio hori betetzeko, 2014ko otsailaren 11ko idazkiaren bitartez (sarrera otsailaren 14a erregistratuta), Arbitraje Batzorde honi erakundeak egindako kontsulta eta espedienteko dokumentazioa igorri zitzaion. Horrez gain, eskatu zitzaion «izapidetzearen inguruko erregelamenduko 16. artikuluan xedatutakoaren markoan, eta kontsultetako batzuk egin zirenetik igarotako denbora aintzat hartuta, eragindako administrazioei espedientean hasieratik jaso den dokumentazioa eta kontsulta ebazteko prozeduran zehar adierazitako irizpide eta argudioak osatzeko aukera ematea».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2014	R13/2016	2016-06-20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Nafarroako Foru Erkidegoa lurralde erkidetzat jotzea. Gatazkaren onargarritasunik eza.</i>

6.- BFAko Koordinazio eta Laguntza Teknikoko zuzendariordeak 2015eko urriaren 20an egindako idazkiaren bitartez (sarrera-erregistroa: urriaren 21a), kontsulta-egilearen egoitza fiskalari erreparatuta zuzenean eragindako foru-diputazioa zen heinean, BFAk Arbitraje Batzordeari eskatu zion Estatuko Administrazio Orokorrak babestutako tesiei amore eman zitzaiela adieraztea. Horrez gain, zehaztu behar zuen amore ematea Araudia Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Batzordean ordezkatuta dauden Euskadiko administrazio guztien izenean formulatu zela.

Idazkian, BFAk baieztatu zuen, gatazka ez zuenez berak bakarrik aurkeztu, hau da, Araudia Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Batzordeak ere aurkeztu zuenez, amore emateko xedez Arbitraje Batzordean pertsonatu aurretik, gaiaren berri eman ziola Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari. Horrek, 2015eko irailaren 10ean egindako 8/2015 saioan, aho batez erabaki zuen proposamena onartzea, eta BFari gomendatu zion, zuzenean eragindako administrazioa zen heinean, Arbitraje Batzordearen aurrean ager zedin, uzi horretan euskal administrazio multzoaren amore ematea adierazteko. Horrez gain, gomendatu zion hartutako erabakia Ogasun Ministerioko Erkidegoko eta Tokiko Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiarri zein administrazio publikoei jakinarazteko.

Halaber, amore emateko idazkian BFAk adierazi zuen erabaki horren oinarria zela Auzitegi Gorenak planteatutako eztabaida ebatzi zuela (uzia aurkeztu ondoren), beste zergadun bati dagokionez, 2014ko azaroaren 13an, 14an (2) eta 17an emandako lau Epaien bidez. Horien bidez, BFAk egindako alegazioak gaitzetsi ziren eta arrazoia eman zitzaion ZAEARI, jurisprudenzia-doktrina gisa ezarriz Nafarroako Foru Erkidegoan egindako eragiketak araubide erkideko lurraldean egintzat hartuko zirela Ekonomia Itunaren 16. eta 28. artikuluetan aurreikusitakoaren ondoretarako.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2014	R13/2016	2016-06-20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Nafarroako Foru Erkidegoa lurralde erkidetzat jotzea. Gatazkaren onargarritasunik eza.</i>

BFaren aburuz, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia horrek babesik gabe utzi zuen EZKOak, Zergapideen Elkaregokitasun, Eraikidetasun eta Lankidetasuneko maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen 14. artikuluari jarraikiz, egindako txostenean adierazitako irizpidea. Irizpide hori 1. ERAKUNDEAK egindako kontsultaren erantzun-proposamenaren (EZKOak berak egin zuen 2004ko otsailaren 10eko 1/2004 saioan) oinarri zen.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Gatazka honen xedea da 1. ERAKUNDEAK Nafarroako Foru Erkidegoan egin dituen merkataritza-eragiketak nola hartu behar diren xedatzea, hau da, foru-lurraldean egindako eragiketa gisa edo lurralde erkidean egindako eragiketa gisa hartu behar diren xedatzea.

2.- Ebazpen hori eman zen egunean, eta haren prozedura-faseari dagokionez, Arbitraje Batzordeak uzia planteatu zuen zegoeneko, eta oraindik ez dira izapideak onartu. Horrek esan nahi du EIABak oraindik ez duela adierazi aipatutako gatazka hark ebatzi behar duen edo ez. Gero azalduko dugunez, gertakizun hori garrantzitsua da ebazpen honen zentzua adierazteko.

3.- Lehenik, erabaki behar dugu zer jarrera hartu behar dugun honako honen gainean: Arbitraje Batzordeak gatazka izapidetzea oraindik onartu ez izanak nola eragin diezaiokeen balizko ebazpen bati.

Baieztatu behar dugu kasu honetan Arbitraje Batzordeak ahalmen osoa duela egokitzen jotzen duen ebazpena emateko; izan ere, izapideak onartu ez badira ere, prozesuari hasiera eman zaio, EIABaren 9. artikulua ezartzen duen moduan. Beraz, Arbitraje Batzordeak amaitutzat jo dezake, prozedura

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2014	R13/2016	2016-06-20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Nafarroako Foru Erkidegoa lurralde erkidetzat jotzea. Gatazkaren onargarritasunik eza.

administratibo oro amaitzeko ezohiko era bat gertatu delako; eta, gero ikusiko dugunez, amaitutzat jo du.

4.- Arbitraje Batzordearen Erregelamendua (EIABA) Arbitraje Batzordeak planteatutako uzi guztietan jarraitu beharreko funtzionamendua, antolamendua eta prozedura arautu behar duen araua da.

EIABAn araututa ez dagoen guztiari, bereziki, prozeduran jasota ez dagoenari, aplika dakioken ordeko zuzenbide gisa, Erregelamenduko 8. artikulua aurreikusten du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututakoa aplikatuko dela.

5.- BFAren bidez arituz, zuzenean eragindako zerga-administrazioa den EZKOak, Auzitegi Gorenak berriki emandako epaiak ikusita, uste du gatazkaren xede den eztabaida behin betiko konpondu dela. Horregatik, bere ustez, amore ematea bidezkoa da ZAEAk 2004ko maiatzaren 10eko alegazio-idazkian planteatutako uziak direla eta. Beraz, uziaren jarraipena xederik gabe geratu da.

30/1992 Legeak (EIABAn 8. artikulua Lege horretara jotzen du funtzionamendu-araubidearen inguruko guztiari dagokionez) ez du amore emateko figura aurreikusten, baina uko egitea aurreikusten du prozedurari amaiera emateko forma gisa (30/1992 Legearen 90. eta 91. artikulua). Izan ere, Batzorde honek hainbat prozeduratan aplikatu du, hala nola abenduaren 20ko R3/2010 Ebazpenean, 34/2008 espedientea; maiatzaren 26ko R16/2011 Ebazpenean, 25/2010 espedientea; urriaren 29ko R14/2012 Ebazpenean, 24/2012 espedientea; abenduaren 19ko R8/2014 Ebazpenean, 90/2011 eta 96/2011 espedienteak pilatuta; eta matxoaren 2ko R4/2015 Ebazpenean,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2014	R13/2016	2016-06-20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Nafarroako Foru Erkidegoa lurralde erkidetzat jotzea. Gatazkaren onargarritasunik eza.

20/2012 espedientea. Halaber, oinarri berberarekin, ebazpen honetan ere aplika genezake, EZKOak erabakitakoa eta BFAk azaldutakoa ikusita.

6.- Are gehiago, Arbitraje Batzorde honen iritziz, gatazkaren prozesu-egoera aintzat hartuta, kasu honetan egokiagoa litzateke uko egitearen figura erabiltzea uziari amaiera emateko, amore ematearen figura baino.

Hori guztia dela eta, uko egitea planteatu ahal izateko beharrezko baldintza ematen den aztertu behar dugu. Baldintza hori da, hain zuzen ere, prozedura eskatu duen interesdunak planteatu behar duela.

Bada, EIABAREN 14. artikulua Araudia Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Batzordeari uziak sustatzeko ematen dion aukerari jarraikiz aurkeztu zen uzia, bai eta Batzorde horrek kontsultak ebazteko akordio bat egiten ez duen kasuetarako Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua aurreikusitakoari jarraikiz ere. Hortaz, 30/1992 Legearen 90. artikulua arabera, Batzorde horrek bakarrik planteatu lezake uko egitea, interesa dutenen artean.

Espedientean jasotzen denez, kontsulta-egilearen egoitza fiskalari erreparatuz, zuzenean eragindako zergako foru-administrazioak planteatu du amore ematea, alegia, BFAk. Horretarako, BFAk Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari alde aurretik jakinarazi zion, amore ematearen figura erabiliz, uzia amaitzeko eskaera egiteko asmoaren arrazoiketa. Arrazoi hori zen, hain zuzen ere, 2014ko azaroan Auzitegi Gorenak eztabaida-gai horren inguruko iritzia eman zuela zegoeneko, lau ebazpenen bidez.

EZKOak (Eusko Jaurilaritza eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ordezkatzeko dira bertan) 2015eko irailaren 10ean egindako 8/2015 saioan aho batez erabaki zuen BFAk egindako amore emateko proposamena. EZKOak BFARI adierazi zion, eragindako administrazioa zen heinean, Arbitraje



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2014	R13/2016	2016-06-20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Nafarroako Foru Erkidegoa lurralde erkidetzat jotzea. Gatazkaren onargarritasunik eza.</i>

Batzordearen aurrean agertu behar zuela, EZKOan ordezkaturik dauden euskal administrazio guztien uzi honetako amore ematea jakinarazteko. Halaber, esan zion hartutako erabakiaren berri emateko Ogasun Ministerioko Erkidegoko eta Tokiko Koordinaziorako Idazkaritza Orokorrari zein administrazio publikoei.

Ondorioz, Araudia Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Batzordeak planteatutako uzia eta uko egitearekin berdinduko dugun amore ematea BFAk baino ez du planteatu, EZKOaren agindua betetzeko.

7 - Araudia Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Batzordea bi aldeko osaera duen organoa da, Estatuaren eta Euskadiren artekoa, eta Ekonomia Itunak, besteak beste, bertan jasotzen diren lotura-puntuen aplikazioari buruzko kontsultak ebazteko funtzioa ematen dio.

Estatuko administrazioari lau ordezkari eta Autonomia Erkidegoko beste lau ordezkari osatzen dute. Azken horiek Eusko Jaurlaritzak izendatzen dituen arren, horietako hiru foru-aldundiek proposatzen dituzte.

Bestalde, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa lau euskal administrazioen administrazioarteko organoa da, eta Zergapideen Elkargokitasun, Eraikidetasun eta Lankidetasuneko maiatzaren 30eko Eusko Legebiltzarraren 3/1989 Legearen markoan sortu zen. Besteak beste, kontsulta lotesleei buruzko txostenak egiteko ahalmena du, horiek bideratu aurretik.

Beraz, kasu honetan ezin daiteke esan uzia planteatu duenak formulatu duela uko egitea, amore ematearen figurarekin berdinduko duguna. Hau da, ezin daiteke esan Araudia Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Batzordeak planteatu duenik. Batzordea osatzen duten kide batzuek bakarrik planteatu dute.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2014	R13/2016	2016-06-20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Nafarroako Foru Erkidegoa lurralde erkidetzat jotzea. Gatazkaren onargarritasunik eza.

Egoera horretan, espedientean interesa dutenen artean batzuek bakarrik uko egiteak ez du balio uziari amaiera emateko.

8.- Hala ere, idazkiaren bidez, BFAk agerian jarri du uzia eragiten zuen desadostasuna behin betiko ebatzi dela, 2014ko azaroaren 13an (348/2013 errekurtsua), 2014ko azaroaren 14an (257/2013 eta 347/2013 errekurtsuak) eta 2014ko azaroaren 17an (273/2013 errekurtsua) Auzitegi Gorenak emandako Epaietan finkatutako irizpideak Zerga Koordinaziorako Organoak onartu ditu eta. Laburbilduz, Epai horietan adierazten da, Itunaren ondoreetarako, Euskadiko lurralde historikoen eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko harremanetan, uzia «lurralde erkidetzat» jo behar dela.

Ondorioz, Araudia Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Batzordea osatzen duten administrazioen artean uzia oinarritzen zuen desadostasuna ebatzita, Arbitraje Batzordeak ez du jardun behar. Horregatik, uzia ez da onartu behar.

Beraz, Arbitraje Batzordeak

## **ADOSTU DU**

1.- Ez onartzea Araudia Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Batzordeak sustatutako uzia, 1. ERAKUNDEA erakundeak egindako kontsultaren ingurukoa.

2.- Jarduketak amaitutzat jotzea.

3.- Akordio honen berri ematea Araudia Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Batzordeari eta Bizkaiko Foru Aldundiari, espedientean agertu den administrazioa den heinean.